

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

URBIDE ARABAKO UR PARTZUERGOA- CONSORCIO DE AGUAS DE ÁLAVA

Laudioko udalerrian 2025ko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien kontribuzio-errola

Laudioko udalerrian 2025eko ekitaldiko bigarren hiruhilekoko edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifei dagokien errola prestatuta, publikoarentzat ikusgai jartzen da hamabost egun balioduneko epean, ALHAOn iragarpen hau publikatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, interesdunek komenigarriak kontsideratzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ditzaten.

Epe hori igarota, erreklamaziorik egongo ez balitz, errola behin betiko onartutzat emango litzateke.

Edateko uraren hornidura eta estolderia zerbitzuen prestazio-tarifen kobratze-epeak:

A.) Epe boluntarioa: 2025eko abuztuaren 21tik urriaren 21ra, biak barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza-erakundeetan kargatuko dira 2025eko abuztuaren 21an.

B.) Kobratzeko epe exekutiboa: 2025eko urriaren 21tik aurrera hasiko da epe exekutiboa, errekaru exekutiboak sortuz, premia murriztu eta premia arruntekoak, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak adierazitako epeetan.

Hala adierazten da, guztiek jakin dezaten.

Ribabellosa, 2025eko uztailaren 8a

Presidentea

JULEN IBARROLA GOBANTES